

SAGARRONDO TXINTXO, SAGARRONDO ON

Ikuskizun honetan, dantza, musika eta hitza uztartuz, sentiberatasuna ardatz dugularik, gure baserrietan protagonista ditugun sagarrondoan inguruan sortu diren bizipenen eta sentipenen berri emango dugu.

Sagarrondoak bertako protagonistak baditugu ere, haiek ekoizten eta lantzen zituztenak baserritarrak izaten ziren, sagarrondook zainduz, sagarrak bilduz, eta atseginezko zukua, sagardoa, eginez. Egun, hori guztia beste era batean lantzen bada ere, sagardotegietan kontsumitzeaz gain, botileratu eta zabalkundea denda, etxe desberdinetan saltzen bada ere, baserritarrei eta haiek egindako lanari esker, ezagutzen dugu prozesu hori guztia.

Gure emanaldian honakook parte hartzen dugu:

- Garazi Etxaburu, dantzariak.
- David Azurza, musikari eta abeslariak
- Urbil Artola, musikariak, kitarrajoleak
- Andoni Salamero, olerkari eta esatariak

Lau sortzaileok bidai berezi bat egitera gonbidatzen dugu ikuslea, alegia, sagarrondoa patxaska izatetik, sagar-hazi denetik, sagardo bihurtzen den une berezira. Dantzaren, musikaren, hitzaren bidez prozesuaren berri ematen jardungo gara, eta horrela sagar-hazi dena sagarrondo bihurtzen ikusiko dugu, eta prozesu horren behatzaile jator diren baserritarrak hortxe ikusiko ditugu sagarrondoa zaintzen, inausten, sagarrak biltzen, sagarra jotzen, sagardoa egiten, sagardoa eginda, erromerian ere parte hartzen...

Azkenik, lan hauxe baserritarrei egin nahi diegun aintzatespen edo errekonozimendua da, hain zuzen haiek eta beraien arbasoek lan hauen ingurukoak bizi izanda, oraindik ere beren egite ona lurretik ateratako emaitza guri eskaintzen aritzen direlako.

Ekitaldia euskaraz izango da, eta noiz izango den hementxe duzue idatzia:

EGUNA: 2024ko urtarrilaren 19an, ostiralean.

ORDUA: 19:00tan

TOKIA: Urretxuko Labeaga Antzokian